

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

EKONOMIA GARAPENAREN ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

720/2025 Erabakia, abenduaren 2ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Araban enpresa berriak sortzeko eta finkatzeko laguntzen 2026eko ekitaldirako deialdiari (Ekin Araban)

Enpresa berriak sortzea, batez ere izaera berritzailea dutenak, funtsezko oinarrietako bat da produkzio sarea modernizatzeko eta dibertsifikatzeko, kalitatezko enplegua sortzeko eta lurralde batean aberastasuna sortzeko, gizarte kohesioa bultzatuz eta bertako biztanleen bizi kalitatea hobetuz.

Testuinguru horretan, ekintzailetza sustatzeko politikak jarduera publiko ohikoenen funtsezko zati dira hazkunde ekonomikoa bizkortzen eta herritarren ongizatea sendotzen laguntzeko, enpresa- eta ekoizpen-egitura lehiakor, iraunkor eta berritzaile bat sortuz.

Horregatik, Arabako Foru Aldundiak beharrezko jotzen du, beste administrazio publikoekin eta sistemako gainerako eragileekin elkarlanean, era osagarrian, ekintzaileen figuraren aldeko ingurune ekonomiko eta sozial bat lortzea, eta ekintzaileei laguntza tresnak ematea enpresa sortzeko prozesuan, ideia jaiotzen denetik proiektua abian jarri arte, eta merkatuan lehiatzen hasten direnean, bai eta enpresa sendotzeko eta hedatzeko faseetan ere.

Ondorioz, Arabako Foru Aldundiak enpresa berriak sortu eta sendotzeko beste laguntza deialdi bat jarri du abian (Ekin Araban). Bi modalitatetan sailkatu dira laguntzak, lurraldean enpresa berria sortu edo ezartzeko prozesua dagoen fasearen arabera: batetik, jarduera sortu, eratu edo abian jartzeko hasierako fasea; eta, bestetik, enpresaren bizi zikloko ondorengo faseak, zeinetan jokoan izaten baita proiektuaren bideragarritasuna eta biziraupena, eta enpresak aurre egiten behar izaten baitie sendotzeari, hazteari eta lurraldean hedatzeari eta nazioartekotzeari loturiko erronkei.

Hasierako fasean, laguntza ematen zaie Arabako ekoizpen sarea modernizatzen, dibertsifikatzen eta lehiakorrago egiten laguntzen duten sektore berritzaileetan edo berrietan enpresa unitate berriak abian jartzen dituzten pertsona fisiko edo juridiko ekintzaileei, eta laguntza handiagoa ematen zaie enpresa berritzaileagoak sortzeko proiektuei.

Enpresaren sendotze eta hedatze fasean, laguntzak ematen zaizkie Araban diharduen jarduera zentro bat duten eta Ekin Araban programaren azken lau urteetako deialdiren batean enpresa unitate berriak sortzeko fasean laguntzen onuradun izan diren proiektuei. Administrazioak enpresen eskalagarritasun prozesuan laguntzen jarraitu nahi du, jardueraren lehen urteetan, aldi horretan erabakitzen baita etorkizunaren zati garrantzitsu bat.

Fase horretan, laguntza ematen zaie txikiak izateagatik berrikuntzan, digitalizazioan eta nazioartekotzean laguntzeko Ekonomia Garapenaren eta Jasangarritasunaren Sailaren beste lerro batzuetara sartzeko zailtasunak izaten dituzten mikroenpresen proiektuei.

Diputatuen Kontseilu Foralaren abenduaren 10eko 54/2019 Foru Dekretuaren bidez onartutako oinarri orokorrak kontuan hartuta, ahalik eta zabalkunderik handiena eskaintzeko eta publikitatearen, lehiaren, objektibotasunaren, berdintasunaren eta bereizkeriarik ezaren printzipioak behar bezala betetzeko, beharrezkoa da laguntzen deialdia ezartzea, zeinari lotu behar baitaizkio ekiteko eta enpresa berriak sortzeko ekimenak. Araban enpresa berriak sortu eta sendotzeko nahitaezko laguntza-deialdia ezartzen da (Ekin Araban).

Horregatik, Ekonomia Garapenaren eta Jasangarritasunaren Saileko foru diputatuaren proposamenez, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Araban ekimenak garatzeko eta enpresa berriak sortzeko laguntzen 2026ko ekitaldirako deialdi publikoa (Ekin Araban), Erabaki honi erantsi zaiona, onartzea.

Bigarrena. Deialdia arautzeko kontuan hartu behar dira dirulaguntzak lehiaren araubidean emateko oinarri arautzaile orokorrak, Diputatuen Kontseilu Foralaren abenduaren 10eko 54/2019 Foru Dekretuaren bidez onartuak.

Hirugarrena. Aurrekontu partida honen kontura ordainduko dira erabaki honen bidez araututako dirulaguntzak:

“15101. G/433152/77000150 Araba ekitea: enpresak” 2026rako indarrean dagoen Arabako Foru Aldundiaren aurrekontu antolamenduaren partida, 1.000.000,00 eurokoa.

Deialdiak eragin egokia izan dadin, zenbateko gehigarri bat ezarri da, hain zuzen ere, gehieneko zenbatekoaren ehuneko 30ekoa, urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak, Arabako lurralde historikoko dirulaguntzarenak, 21.2 xedatutakoarekin bat etorriz.

Laugarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratuko da eta 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera eraginak sortuko ditu.

Bosgarrena. Deialdiaren behin betiko ebazpena eten dezakeen baldintza gisa, kreditu egokia eta nahikoa izan behar da Arabako Foru Aldundiaren 2026rako aurrekontuan.

Seigarrena. Ebazpen honen bidez administrazio bidea amaituko da. Urriaren 1eko 39/2015 Legearen, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenaren, 123. artikulua arabera, berraztertze akerako errekurtsoa aurkeztu ahalko da Diputatuaren Kontseiluan hau argitaratu eta hurrengo egunetik hilabeteko epea edo, bestela, zuzenean aurkaratu ahalko da administrazioarekiko auzien jurisdikzioan hau argitaratu eta hurrengo egunetik bi hilabeteko epean, jurisdikzio eskuduneari.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko abenduaren 9a

Ekonomia Garapenaren eta Jasangarritasunaren Saileko foru diputatua
SARAY ZÁRATE FERNÁNDEZ DE LANDA

Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren zuzendaria
ANDER LARRINAGA SAIZ

ERANSKINA**ARABAN ENPRESA BERRIAK SORTZEKO ETA SENDOTZEKO
LAGUNTZEN 2026RAKO DEIALDIA (EKIN ARABAN)****1. artikulua. Helburua**

Deialdi honen xedea da Araban enpresa berrien sorrera sustatzea eta enpresa horiek sendotzeko eta hedatzeko prozesuetan laguntzea, norgehiagoka-araubidean dirulaguntzak emanez Arabako produkzio-sarea modernizatzen, dibertsifikatzen eta lehiakortasuna hobetzen laguntzen duten enpresa-unitate berriak abian jartzen dituzten pertsona fisiko edo juridiko ekintzaileei, baldin eta baldintza hauetakoren bat edo batzuk betetzen badituzte:

- Oinarri teknologikoko enpresa-unitatetzat hartzea.
- Beren jarduera industriarekin lotutako edo industriari lotutako sektoreetan edo lurraldearen garapen ekonomikorako interes berezia duten sektoreetan garatzea.
- Beren sektorean teknologia edo teknika berriak erabiltzeagatik berrizaitetzat jo daitekeen jarduera bat garatzea.
- Udalerrian edo ingurunean ordezkaritza txikia izateagatik berrizaitetzat edo berrizaitetzat har daitekeen jarduera bat garatzea.

2. artikulua. Laguntza modalitateak

Hauk izango dira laguntza modalitateak:

- 2.1. Enpresa unitate berriak sortzeko laguntzak.
- 2.2. Enpresak sendotu eta hedatzeko laguntzak, azken lau urteetan Ekin Araban-en deialdiren batean dirulaguntza jaso duten enpresentzat.

3. artikulua. Aurrekontu partidak eta gehieneko zenbateko osoa

Erabaki honen bidez araututako dirulaguntzak partida hauen kontura ordainduko dira:

- Arabako Foru Aldundiaren 2026rako indarreko aurrekontu antolamenduaren “Ekin Araban” partidaren kontura, 1.000.000,00 euro.

Deialdiaren behin betiko ebazpenerako ezinbesteko baldintza (etengarria) izango da Arabako Foru Aldundiaren 2026ko ekitaldirako aurrekontu antolamenduan kreditu egokia eta nahikoa egotea.

Kopuru osoa, gutxi gorabehera, honela banatuko da 2. artikuluan ezarritako modalitateen artean:

- Enpresa unitate berriak sortzeko laguntzak: 800.000,00 euro.
- Enpresak sendotu eta hedatzeko laguntzak: 200.000,00 euro.

Deialdiaren funtzionamendu egokia bermatzeko, gehieneko zenbateko osoaren ehuneko 30erainoko kopuru gehigarria ezarri da, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauko 21.2. artikuluan ezarritakoaren arabera.

4. artikulua. Erakunde onuradunak

4.1. Deialdi honetan jasotzen diren onurak eskuratu ditzakete:

4.1.1. Enpresa unitate berriak sortzeko proiektuek

a) Enpresa unitate berria sortzeko proiektua duten pertsona fisikoek. Dirulaguntza ordaindu aurretik, sozietatea eratu beharko du hark, sozietate edo zerga egoitza Araban izanda, eta/edo lurralde historikoko udalerrri batean laguntza eskatu duen jarduerari dagokion jarduera ekonomikoen

gaineko zergan alta emanda egon beharko du, 5.4. artikuluan xedatutakoari lotzen zaion kasua ez bada, eta lan zentroa eduki beharko du lurraldean. Ez da joko enpresa unitate berri bat sortzen dela baldin lehenago beste izen edo forma juridiko baten pean jarduera bera egiten bazuten.

b) Beren jarduera dibertsifikatu nahi duten Arabako pertsona juridikoek, enpresa unitate berri bat sortzeko proiektu zehatz bat aurkezten badute, eta proiektu horrek aurrekoak ez bezalako nortasun juridikoa eta jarduera baditu.

c) Egoitza edo jarduera Arabatik kanpo izanda enpresa jarduerarako zentro bat lurraldera eramane edo bertan ezartzen duten pertsona fisiko edo juridikoek, baldin eta bertan lanean langileak badaude dirulaguntza emateko unean.

d) Araban diharduen jarduera zentro bat duten pertsona fisiko edo juridikoek, irteera fasean badaude eta eskaera egiteko egunean jarduera hasi edo enpresa gisa eratu zenetik gehienez bi urteko antzinatasuna badute.

Baldintza hauetakoren bat edo batzuk bete beharko dituzte:

- Oinarri teknologikoko enpresa-unitatetzat hartzea.
- Beren jarduera industriarekin lotutako edo industriari lotutako sektoreetan edo lurraldearen garapen ekonomikorako interes berezia duten sektoreetan garatzea.
- Beren sektorean teknologia edo teknika berriak erabiltzeagatik berritzailetzat jo daitekeen jarduera bat garatzea.
- Udalerrian edo ingurunean ordezkaritza txikia izateagatik berritzailetzat edo berritzailetzat har daitekeen jarduera bat garatzea.

4.1.2. Enpresak sendotu eta hedatzeko proiektuek

Arabian diharduen jarduera zentro bat duten pertsona fisiko edo juridikoek, Ekin Araban programako laguntzen onuradun izan badira azken lau urteetako deialdiren batean enpresa unitate berriak sortzeko fasean, eta lanaldi osoan gutxienez enplegu bat eta gehienez 10 enplegu badiuzte Arabari atxikiak dirulaguntza emateko unean; proiektuaren sustatzaileak ez dira zenbatuko. Pertsona fisikoak edo juridikoak gehienez ere bi urtez izan daitezke onuradun finkatze fasean.

4.2. Dirulaguntzen onuradun izateko, legezko gainerako betekizunak betetzeaz gain, erakundeek egunean izan beharko dituzte Ogasunarekiko zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, bai diru laguntza emateko ebazpenaren aurretik, bai diru laguntza jasotzeko unean.

Erakunde onuradunak Gizarte Segurantzako inolako erregimenetan kotizazio kontuaren koderik esleituta ez badu, enpresako bazkide guztiek Gizarte Segurantzarekin egunean egon beharko dute.

4.3. Enpresa-proiektu berriak garatzen eta ekintzaileei laguntzen esperientzia duten erakunde publiko edo pribatuak babestu ahal izango dituzte proiektuak. Araudi honen ondorioetarako, ez da tutoretzat hartuko irabazi-asmoa duten aholkularitza-enpresen eskutik jasotako aholkularitza.

4.4. Ezin dira onuradun izan erakunde administrazioari dagozkion nortasun juridiko propiodun erakundeak eta sozietate publikoak, ez eta beste hauek ere: zuzenbide publikoko beste erakunde batzuk, irabazteko xederik gabeko erakundeak eta jarduera asoziatiboak edo profesionalak gauzatzen dituztenak (elkartek, elkargo profesionalak eta abar).

4.5. Halaber, kanpoan geratzen dira ezarritako epearen barruan laguntza lerro honen aurreko deialdietan diruz lagundutako jarduerak egin eta ordaindu izana frogatu ez duten erakunde eskatzaileak, Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zerbitzuaren iritiz haiek ez egiteko arrazoiak behar beste argudiatu balira izan ezik.

5. artikulua. Jarduerak, diruz lagundu daitezkeen gastuak eta diruz lagundu ezin daitezkeen gastuak

5.1. Diruz laguntzeko modukotzat hartuko dira Arabako Lurralde Historikoan enpresak sortzeko edo jarduera-zentroak ezartzeko proiektuak garatzera bideratutako jarduerak, bai eta Ekintzaile programaren Araban 2022-2025 bitarteko deialdietan dirulaguntza lortu duten enpresa berriak sendotzen eta hedatzen laguntzeko jarduketak ere, baldin eta oinarri hauetan ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

5.2. Jarduera hauek ez dute laguntzarik jasoko:

– Enpresa-proiektuak sortzea, beren ezarpen-eremuan (sektorekoa, geografikoa, etab.) presentzia handia duten sektore tradizionalekin bat datozenak eta lurraldean garatzen den ekoizpen-jarduera modernizatzen eta dibertsifikatzen behar adina laguntzen ez dutenak.

– Ordezkaritza komertzial hutsak irekitzeak.

– Lehengo enpresa harremanak haustearen ondorioz sortutako enpresa proiektuek, horiek auzi egoeran aurkitzen badira.

– Dauden enpresak eskuratzeak, haiek egiten zuten jarduera bera egiten jarraitzeko.

– Sustatzaileak frankizia eskubideak edo marka edo antzekoen lizentziak erostera bideratutakoak.

– Ordezkaritzak irekitzeak frankizia sistemaren edo antzekoen bitartez.

– Plataforma digitalen bidez negoziokoak sortzeak, Araban lan zentro fisikorik eta gutxienez sustatzaile baten edo, hala badagokio, langile baten ohiko bizilekurik gabe.

– Enpresa jardueraren eskalagarritasunari behar beste laguntzen ez dioten sendotze eta hedatze proiektuetako jarduerak.

5.3. Diruz lagundu ahal izango dira 5.1 apartatuan aipatutako jarduerak egitean sortutako gastuak, ekintzailetza- edo sendotze-proiektuaren garapen naturalarekin koherenteak badira, hala nola:

5.3.a) Enpresa unitate berriak sortzea.

– Merkatu ikerketak eta proiektuaren bideragarritasunaren analisiak. Haien barruan sartu ahalko dira merkatu prospekzioei lotutako ikerketak eta azoketara joatea, eta dokumentazioa eta argitalpenak lortzea.

– Proiektuari loturiko berariazko txostenak, azterlanak eta aholkularitza teknikoa, baita juridikoa ere negozioren garapenari loturiko jarduketetarako denean.

– Prototipoak diseinatu eta eraikitzeak gastuak, eraikuntzarako materialak barne. Gehienez ere 20.000,00 euro arte. Ibilgetutzat hartuko dira.

– Patenteak, homologazioak, erabilgarritasun-modeloak eta marka komertzialak eskatzea, ematea eta erregistratzea, 10.000,00 euroko gehieneko mugarekin. Ekintzailetza-proiektu zabalago baten esparruan baino ez dira diruz lagunduko jarduketak horiek.

– 350 ordu baino gutxiagoko prestakuntza edo berariazko ikastaro teknikoetara joatea, 3.000,00 euroko gehieneko mugarekin.

– Dirulaguntza jaso dezakeen proiektuari lotutako komunikazio gastuak, 20.000,00 euroko gehieneko mugaraino. Haien artean publizitate kanpainak, azoketara erakusketari joatea, web orrien diseinua, sare sozialen diseinua, katalogoen, kartelen, bisita txartelen eta abarren diseinua eta edizioa.

– Azoketara joateko bidaiak. Garraio publikoko gastuak eta azoketara bisitari edo erakusketari gisa sartzeko sarrerak baino ez dira onartuko (bakarra sustatzaileko).

– Softwarea eta hardwarea erostea, oro har, baita garapen edo aplikazio informatiko espezifikoak ere. Gastu horiek ibilgetutzat hartuko dira. Tableten eta ordenagailuen kasuan, oro har, ezingo da gainditu bazkide sustatzaile bakoitzeko unitate baten muga, eta 1.500,00 euroko gastu-muga aplikatuko da bazkide sustatzaile bakoitzeko, salbu eta proiektuak ekipamendu gehiago edo zenbateko handiagokoak eskatzen baditu eta behar bezala justifikatzen bada, Ekonomiaren Garapen eta Berrikuntza Zerbitzuaren iritziz. Oro har softwarea eta hardwarea erostea, bai eta berriazko garapen edo aplikazio informatikoak ere. Gastu horiek ibilgetutzat joko dira. Tableta eta ordenagailuen kasuan, oro har ezin izango da gainditu bazkide sustatzaileko unitate bateko muga, eta bazkide sustatzaileko 1.500,00 euroko gastu muga ezarriko da, salbu proiekturako ekipo gehiago edo zenbateko handiagoa behar bada eta behar bezala justifikatuta badago Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zerbitzuaren iritziz.

– Ibilgetuko beste inbertsio batzuk, lurrak, eraikinak eta ibilgailuak izan ezik. Ibilgetu materiala leasing bidez eskuratzen bada, interesik, gasturik eta BEZik gabeko kuotetarako emango da dirulaguntza.

– Arabako enpresa-jarduera garatzeko lokal baten errentamendu-gastuak, diruz lagundu daitekeen gehieneko gastua 8.000,00 eurokoa izanik. Salbuetsita geratzen dira beste erakunde batzuek hobaritutako errentamenduak.

5.3.b) Enpresak sendotu eta hedatzea.

Kanpoko gastuak diruz lagunduko dira baldin eta lanbide gaitasunak, fakturazioa eta/edo enplegua handitzea ahalbidetzen badute, enpresaren lehiakortasuna handitzeko helburuarekin, eta negozioa sendotzeko, hazteko eta merkatu eta merkatu hobi berrietarantz hedatzeko prozesuan laguntzen badute.

Honako hauek joko dira diruz lagun daitezkeen gastutzat:

– Kanpoko aholkularitza lanak, juridikoak barne negozio jarduerak garatzeko bada, 20.000,00 euroko gehieneko mugarekin.

– Azterketa teknikoak eta merkatuari buruzkoak.

– Patenteak, homologazioak, erabilgarritasun-modeloak eta marka komertzialak eskatzeari, emateari eta erregistratzeari lotutako gastuak.

– Komunikazio gastuak, 20.000,00 euroko gehieneko mugaraino.

– 350 ordutik beherako prestakuntza eta/edo ikastaro tekniko espezifikoetara joatea.

– Ibilgetua erostea, ekoizpena eta/edo lehiakortasuna handitzeko.

– Teknologoa edo negozioaren garatzailea kontratatzearen gastuak. Gizarte Segurantzaren araubide orokorreko 1. kotizazio taldekoa izan behar da. Haren lan baldintzek erakundean aplikatu beharreko hitzarmenean xedatutakoa bete beharko dute eta Arabako lan zentro batean egon beharko du. Araban plantilla handitzea ekarri beharko du, eta 2026ko ekitaldiko kostuak sartu beharko dira, eskaera aurkezten den egunetik aurrera.

5.4. Enpresa proiektua bideragarritasuna aztertzeko hasiera fasean dagoenean eta proiektuak aurrera jarraitzea azterketaren ondorioen mende dagoenean, gastu horiek baino ez dute dirulaguntza jasoko eta ez da beharrezkoa izango sozietatea eratzea edo jarduera ekonomikoen gaineko zergan alta ematea dirulaguntza ordaintzeko unean.

5.5. Besteak beste, honako gastu hauek ez dute dirulaguntzarik jasoko:

– Erakunde kontratatzailearen eta kontratatuaren artean loturak daudenean izandako gastuek.

– Enpresa eratzekoek; besteak beste: notariotza gastuak, irekitzeko lizentziak, jarduera lizentziak, nahiz negozioa abiarazteko derrigorrezko beste tasa batzuk.

- Laguntza lerro honek edo aurrekoek diruz lagundutako beste batzuen antzeko edukia duten ikerketak egiteak.
- Ibilgailuak eta eraikinak errotulatzeko gastuek.
- Bidaiek, salbu azoketara joatekoak.
- Otorduetarako gastuek.
- Material suntsikorrak erosteak, prototipoen eraikuntzarako ezarritakoaren kalterik gabe.
- Ohiko gastuek; besteak beste, argia eta telefonoa, aldizkarietarako harpidetzak, aseguruak eta bulegoko materiala.
- Telefono terminalak eskuratzeak, nahiz eta haien artean aplikazio informatikoak egon.
- Zerga, lan, kontabilitate zein administrazio aholkularitzak, eta lege arlokoak enpresa sortzeko bada.
- Enpresa edo lanbide elkarteetan parte hartzeko kuotek eta elkargokide egiteko gastuek.
- Web orrien erregistratze eta hostingari datxezkien gastuek, haiek sortzeari zuzenean lotuta izan ezean.
- Sustapen materiala (merchandisinga) erosteak eta banatzeak.
- Sustapen ekitaldien gastuek (bazkariak, ostatuak, jai-ekitaldiak, etab.).
- Obrek, eraikuntza proiektuek eta instalazio lagungarriek (instalazio elektrikoak, girotzea, segurtasuna etab.), bulegoak eta lokalak eraberritzeak eta apaintzeak.
- Kasuan kasu, erakunde tutoretako plantilletako teknikarien kostuek.
- Enpresaren beraren langileria kostuek, salbu 5.3.b) artikuluan xedatutakoak.
- Balio erantsiaren gaineko zergak (BEZ) eta gainerako zeharkako zergek.
- Salgaiek.

5.6. Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zerbitzuaren ustez, proiektuaren gastu aurrekontua gehiegizkoa dela jotzen bada, antzeko proiektuetako gastuen batez besteko kostuarekin alderatuta, gastu doitu eta proportzionatutzat jotzen denera murriztuko da diruz lagun daitekeen zenbatekoa.

5.7. Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zerbitzuaren iritziz erakunde esleitzailak proposatutako jardueraren batek laguntza deialdi honen helburuari egindako ekarpena nahikoa ez bada, baztertu edo murriztu ahal izango da esleitu behar den dirulaguntza kalkulatzeko.

5.8. Diruz lagundu daitekeen gastuaren ehuneko ehunera arteko azpikontratazioa baimentzen da, betiere araudian ezarritako betekizunak eta debekuak errespetatuta.

5.9. Diruz lagundu daitekeen elementuko gastu txikiena 100,00 euro (BEZa aparte) da, bai aurrekontua onartzean, bai fakturak justifikatzean. Salbu eta Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zerbitzuaren ustez zenbateko txikiago bat behar bezala eta kontzeptualki justifikatzen bada.

6. artikulua. Proiektuak egiteko epea eta aplikazio eremua

6.1. Enpresa unitate edo jarduera zentro berriak sortzeko proiektuak Arabako Lurralde Historikoan ezarri beharko dira.

6.2. Enpresa berriak sortzeko modalitatean, diruz lagundu ahal izango dira 2025eko martxoaren 1ean eta 2026ko abenduaren 15ean bitartean egiten diren gastuak, biak barne.

6.3. Enpresak sendotzeko eta hedatzeko modalitatean, diruz lagundu ahal izango dira 2026ko urtarrilaren 1a eta abenduaren 15a bitartean egindako gastuak, biak barne.

7. artikulua. Dirulaguntzen zenbatekoak eta mugak

7.1. Enpresa-unitate berriak sortzeko proiektuak: baremo hauen arabera ezarriko da dirulaguntzaren zenbatekoa, proiektuaren kalifikazioaren arabera.

PUNTAZIOA	PROIEKTUAREN DIRULAGUNTZAREN MUGA	OHARRAK
80-100 puntu	Diruz lagundu daitekeen gastuaren % 80, 80.000,00 euroko mugarekin	Gehienez ere 40.000,00 euro ibilgetuaren eskurapenetatik etor daitezke
70-79 puntu	Diruz lagundu daitekeen gastuaren % 70, 40.000,00 euroko mugarekin	Gehienez ere 20.000,00 euro ibilgetuaren eskurapenetatik etor daitezke
60-69 puntu	Diruz lagundu daitekeen gastuaren % 60, 30.000,00 euroko mugarekin	Gehienez ere 15.000,00 euro ibilgetuaren eskurapenetatik etor daitezke
51-59 puntu	Diruz lagundu daitekeen gastuaren % 60, 10.000,00 euroko mugarekin	Gehienez ere 5.000,00 euro ibilgetuaren eskurapenetatik etor daitezke
50 puntu	Diruz lagundu daitekeen gastuaren % 60, 6.000,00 euroko mugarekin	Gehienez ere 3.000,00 euro ibilgetuaren eskurapenetatik etor daitezke

Proiektua garatzeko egiten diren gastuak hainbat ekitalditan egiten badira, proiektu hori laguntza hauen hurrengo edizioetara aurkeztu ahal izango da, aurreko apartatuko mugak proiektu osoari aplikatuz esleipenaren aurreko unean eta benetan ordaindutako dirulaguntzen zenbatekoak kontuan hartuta.

7.2. Enpresa-unitate berriak sortzeko modalitatean, honako baldintza hauek betez gero, enpresak dirulaguntzaren ehuneko gehigarri bat lortu ahal izango du, adierazitako taularen arabera:

– Pertsona fisiko onuraduna emakumea izatea, edo talde sustatzaile batek aurkeztutako proiektuetan, baldin eta talde sustatzailearen erdia gutxienez emakumea bada, eta gutxienez ehuneko 40ko sozietate-partaidetza badute.

– Pertsona fisiko onuraduna 35 urte bete arteko pertsona bat izatea, edo talde sustatzaile batek aurkeztutako proiektuen erdia, gutxienez, 35 urte arteko gazteak izatea, baldin eta haien sozietate-partaidetza, gutxienez, ehuneko 40koa bada.

– Proiektua Arabako Lurralde Historikoko 20.000 biztanletik beherako udalerrri batean ezartzea.

– Proiektua gizarte-ekonomiako enpresen forma juridikoarekin eratu izana edo eratuko dela: kooperatibak edo lan-sozietateak.

BETETAKO BETEKIZUNEN KOPURUA	DIRULAGUNTZA GEHIGARRIA
Gutxienez 3 baldintza	%10eko dirulaguntza gehigarria
Gutxienez 2 baldintza	% 8ko dirulaguntza gehigarria
Gutxienez 1 baldintza	% 5eko dirulaguntza gehigarria

7.3. Atalean adierazitako dirulaguntza gehigarriaren ehunekoak ez zaizkie aplikatuko 80 puntu edo gehiago lortzen dituzten proiektuei.

7.4. Enpresak sendotzeko eta hedatzeko proiektuak: dirulaguntzaren zenbatekoa baremo hauen arabera ezarriko da, proiektuaren kalifikazioaren arabera.

PUNTAZIOA	PROIEKTUAREN DIRULAGUNTZAREN MUGA ETA URTEA	OHARRAK
60-100 puntu	Diruz lagundu daitekeen gastuaren % 50, 20.000,00 euroko mugarekin	5.3.b) artikuluan xedatutako langileen kontratazioak 10.000,00 euroko dirulaguntza izango du gehienez
51-59 puntu	Diruz lagundu daitekeen gastuaren % 50, 12.000,00 euroko mugarekin	5.3.b) artikuluan xedatutako langileen kontratazioak 6.000,00 euroko dirulaguntza izango du gehienez
50 puntu	Diruz lagundu daitekeen gastuaren % 50, 6.000,00 euroko mugarekin	5.3.b) artikuluan xedatutako langileen kontratazioak 3.000,00 euroko dirulaguntza izango du gehienez

7.5. Bi modalitateetan, proiektua diruz lagundu ahal izateko, onartu beharreko dirulaguntzaren gutxienezko zenbatekoa 1.500,00 eurokoa izan behar da.

8. artikulua. Jardunbidea bideratzeko eskumena duten organoak

8.1. Prozedura Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zerbitzuak bideratuko du.

8.2. Balioespen batzordea honela eratuta egongo da:

Batzordeburua: Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren zuzendaria edo hark eskuordetzen duen pertsona.

Kideak: Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zerbitzuaren burua edo hark eskuordetzen duen pertsona.

Idazkaria: Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zerbitzuko teknikari bat.

9. artikulua. Eskaerak aurkezteko epea eta modua

9.1. Eskaerak aurkezteko epea 2026ko urtarrilaren 1ean hasiko da eta 2026ko martxoaren 1ean bukatuko da.

9.2. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 14.2 artikulua betez, honako hauek telematikoki aurkeztera behartuta daude, egoitza elektronikoaren berriazko izapidearen bidez <https://e-s.araba.eus>, pertsona juridikoak; nortasun juridikorik gabeko erakundeak; elkargoko kide izatea nahitaezkoa duen jarduera profesional batean dihardutenak, jarduera horretan egiten dituzten izapideetarako, eta administrazioarekiko harremana elektronikoki izatera behartuta dagoen interesdun bat ordezkatzeko dutenak.

Pertsona fisikoek aukeran izango dute eskabidea aurrez aurre egitea Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean (Probintzia Plaza 5, 01001 Vitoria-Gasteiz); Vitoria-Gasteizko, Guardiaiko eta Laudioko Ogasun bulegoetako erregistroan, edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan jasotako gainerako erregistroetako edozeinetan. Eskabidea aurrez aurre aurkeztuz gero, eskaerak Arabako Foru Aldundiaren web orri instituzionalean eskuragarri dagoen eredura egokitu beharko dira <https://e-s.araba.eus>. Eredue hori, halaber, Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zerbitzuan egongo da eskuragarri.

Eskaera Foru Aldundiko Erregistro Nagusian paperean aurkezten duten erakunde eskatzaileek eskaeraren dokumentazio osoa empresarenalava@araba.eus helbide elektronikora igorri beharko dute. Bidalketa hori paper formatuan egindako eskaera ofizialaren osagarria izango da eta, horrenbestez, aurkezpen ondorioetarako ez du inolako baliorik izango.

9.3 Eskaera egiteko unean aurkeztu behar den dokumentazioan eskaera eredua sartuko da, behar bezala osorik beteta, eta harekin batera baita dokumentazio hau ere:

9.3.1. Enpresa berriak sortzeko modalitatearen eskatzaileak:

a) Eskatzaileari buruz:

• Pertsona fisikoa bada:

– NANaren fotokopia.

– Curriculum vitae-a.

– Jarduera ekonomikoen gaineko zergan alta ematearen fotokopia (jarduera ekonomikoren bat egiten badu) eta haren ziurtagiri historikoa.

• Pertsona juridikoa bada:

– IFZaren fotokopia.

– Erakundearen memoria laburra eta bazkideen eta, hala badagokio, proiektuko partaideen curriculum vitae-a.

– Eratze eskrituraren eta ondorengo aldaketa guztien fotokopia.

– Altaren kopia jarduera ekonomikoen gaineko zergan.

b) Enpresa edo jarduera zentroa sortzeko proiektuari buruz:

– Proiektuaren deskribapen memoria, deialdi honen 10. artikuluan xedatutako irizpideekin bat etorritik eskaera balioestea ahalbidetuko duena. Urtean zehar gauzatuko diren jarduerak azaldu behar dira, zein helburu lortu nahi diren eta egutegia, bai eta aurkeztutako gastuak zertarako erabiliko diren ere. Negozioaren bideragarritasun plana aurkeztea balioetsiko da.

– Gutxienez 2 urteko aurreikuspen emaitzen kontuak.

– 10.000,00 eurotik gorako gastuak badira, lana egingo duen kanpoko profesionalaren edo enpresa hornitzailearen eskaintzaren fotokopia (proforma fakturak, kanpoko aurrekontua edo, halakorik balego, kontratu sinatua).

– Dirulaguntza jasotzeko aurkeztutako gastuen koadroa.

– Hala badagokio, enpresa proiektu berriak garatzeko eta pertsona ekintzaileei laguntzeko eremuan esperientzia duen erakunde tutoreak proiektu horri egiten dizkion jarraipen eta laguntza lanen azalpena.

– Halakorik izanez gero, deialdi honetan aurkeztutako jarduera berak egiteko beste laguntza batzuen eskaerak/ebazpenak.

9.3.2. Enpresak sendotu eta hedatzeko modalitateko eskatzaileak:

– Memoria teknikoa eta ekonomikoa. Hartan, behar bezala justifikatu beharko da gauzatuko den hedatze/sendotze plana, enpresa eskatzaileari lanbide gaitasunak, fakturazioa eta/edo enplegua handitzea ahalbidetuko diona, enpresaren lehiakortasuna handitzeko helburuarekin, eta negozioa sendotzeko, hazteko eta merkatu eta merkatu hobi berrietarantz hedatzeko prozesuan lagunduko diona.

– Dirulaguntza jasotzeko aurkeztutako kanpoko gastuen taula.

– 10.000,00 eurotik gorako gastuak badira, lana egingo duen kanpoko profesionalaren edo enpresa hornitzailearen eskaintzaren fotokopia (proforma fakturak, kanpoko aurrekontua edo, halakorik balego, kontratu sinatua).

– Egoki bada, diruz lagundu beharreko kontratazio berriaren gastuen taula.

– Araban altan dagoen plantillaren ziurtagiria, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak egina.

9.4. Erakunde eskatzaileak baliozkotasuna emango die Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zuzendaritzak eta/edo Zerbitzuak laguntzaren eskaera orrian identifikatutako harremanetarako pertsonaren helbide elektronikora bidalitako komunikazio guztiei.

9.5. Dirulaguntza eskaera aurkezteak berekin ekarriko du eskatzaileak baimena ematea izapideak egiten dituen organoak zuzenean eskuratu ahal izateko 4. artikuluan adierazten diren inguruabarren egiaztagiriak, eta bereziki Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko egoerari buruzkoak. Nolanahi ere, egoitza Arabako Lurralde Historikoan ez daukaten erakundeek beraiek aurkeztu beharko dute Ogasunarekiko egoerari buruzko ziurtagiria.

10. artikulua. Balioespen irizpideak

Aurkeztutako eskaerak ondoren aipatzen diren irizpide eta puntuazioaren arabera balioetsiko dira, eta gutxienez 50 puntu beharko dira, diruz lagunduko badira.

• Talde sustatzailearen/kudeatzailearen balioespena (0-20/0-30 puntu).

Enpresa unitate berriak sortzearen kasuan, proiektuaren sustatzaileen gaitasuna eta esperientzia eta haien inplikazio maila balioetsiko dira. Enpresak sendotu eta hedatzeko proiektuen kasuan, talde kudeatzailearen kalitatea balioetsiko da, proiektuaren garapenean lortutako emaitzetan neurtuta: fakturazioaren bilakaera, enplegua, garatutako produktuak eta esanguratsuak izan daitezkeen bestelako gertaera garrantzitsuak; gehienez, 30 puntu.

- Proiektuaren tutoretza (0-10 puntu).

Proiektuaren tutoretza deialdi honen 4.3 artikuluan deskribatutako erakunde publiko edo probatu batek egitea eta hark bertan duen inplikazio maila balioetsiko dira. Irizpide hori ez da balioetsiko sendotze proiektuetan.

- Enpresa proiektuaren berrikuntza maila eta ahalmena (0-30 puntu).

Enpresa unitate berriak sortzearen kasuan, enpresa proiektuaren berritasuna, originaltasuna eta bitxitasuna balioetsiko dira, bai eta bideragarritasun ekonomikoa, hazteko duen aukera eta enplegua sortzeko ahalmena ere. Era berean, negozio estrategia ere balioetsiko da, honako hauei dagokienez: bezeroak, merkatua, lehiatzaileek, produktuak, teknologiak, eta abar. Enpresak sendotu eta hedatzeko proiektuen kasuan, proiektuaren eskalagarritasuna balioetsiko da, salmentak, enpleguak, produktuak eta merkatuak eta abar areagotzeko ahalmenari dagokionez. Gutxienez, 15 puntu lortu behar dira atal honetan proiektuak dirulaguntza jaso ahal izateko.

- Inguruan duen eragina (0-30 puntu).

Ekoizpen ehunaren modernizazioan, dibertsifikazioan eta lehiakortasunaren hobekuntzan eta lurralde orekan zer ekarpen egiten duen baloratuko da, bai eta Euskadiko espezializazio adimendunaren strategiarekin zer inplikazioa duen ere: industria adimenduna, energia garbiagoa eta osasun pertsonalizatua. Gainera, balorazio positiboa emango zaie 1.000 biztanletik beherako herriguneetan garatzen diren proiektuei.

- Eskaeraren zehaztasun maila eta edukia (0-10 puntu).

Eskaeraren edukien argitasuna eta lehen unetik eskatutako dokumentazio guztia aurkeztea balioetsiko dira. Eskaerak elektronikoki aurkeztea ere positiboki balioetsiko da.

11. artikulua. Ebazpena eta jakinarazpena

11.1. Organo eskudunak, balioespen batzordeak proposatuta, behar diren ebazpenak emango ditu; ebazpen horiek, ahal dela, baliabide elektronikoen bitartez jakinaraziko dira, eta ezinezkoa bada, gutun ziurtatuaren bidez, Administrazio Publikoen Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 41. eta 42. artikuluetan xedatutakoa aintzat hartuz.

11.2. Jakinarazitako ebazpen horrek administrazio bidea agortzen du, baina aukerako berraztertze errekurtsoa jar dakioke Foru Gobernu Kontseiluari, egintza hau jakinarazi ondorengo egunean hasi eta hilabete igaro baino lehen, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikulua xedatzen duenaren arabera. Bestela, zuzenean aurkatu daiteke administrazioarekiko auzietarako dagokion jurisdikzioan, egintza hau jakinarazi ondorengo egunean hasi eta bi hilabete igaro baino lehen.

12. artikulua. Emandako laguntza onartzea

12.1. Dirulaguntza eman izanaren jakinarazpena jaso eta hamar egun balioduneko epean, erakunde onuradunak dirulaguntza onartzeko edo hari uko egiteko idazkia bidali beharko du. Dirulaguntza onartzen badu, erakunde onuradunak dirulaguntza esleitzeko ebazpenean agertzen diren baldintza guztiak onartuko ditu.

12.2. Esleipen prozeduran, onuradunen batek dirulaguntzari uko egiten badio, dirulaguntza ematen duen organoak dirulaguntza puntuazio hurrenkerako hurrengo proiektu edo jarduketari esleitzea erabaki ahal izango du, beste deialdi baten premiarik gabe, baldin eta onuradunak uko egiteagatik nahikoa kreditu geratu bada ezetsitako eskaeretako bati behintzat aurre egiteko.

13. artikulua. Ordaintzeko betebeharra eta dirulaguntzaren ordainketa aitortzeko justifikazioa

13.1. Onetsitako dirulaguntzak ebazpenean nahiz ondorengo puntuetan xedatutako betekizun eta baldintza guztiak bete ondoren likidatuko dira.

13.2. Arabako Foru Aldundiak dirulaguntza ordaintzeko betebeharra aitortu ahal izateko, beharrezkoa izango da erakunde onuradunak 2026ko abenduaren 15a baino lehen honako dokumentu hauek aurkeztea:

– Egindako jarduera guztien azken memoria, hauek zehaztuz: zer mailatan lortu diren helburuak, asebetetze maila, jardueren kronologia eta diruz lagundutako kontzeptuetan izan diren desbideratzeak.

– Diruz lagundutako proiektuko gastuen eta diru sarreraren taula eta/edo finantzaketa taula.

– Ordainagiriak eta gainerako frogagiri baliokideak. Beste herrialde batzuetako erakundeek egindako fakturak itzulita egongo dira, ingelesez egindakoak izan ezik.

– Eskaintza hirukoitza eta arrazoitzeko txostena, hautatutako eskaintza ekonomikoki onuragarriena ez bada (izandako benetako gastua 15.000,00 euroko mugaraino iritsi edo hura gainditzen badu eta eskabidean jaso ez bada).

– Halakorik izanez gero, jarduerak egiteko beste laguntza batzuen eskaerak/ebazpenak, aldez aurretik aurkeztu ez direnak.

– Kontratazio gastuetarako dirulaguntza jasoz gero (sendotzeko laguntzen modalitatean baino ezin da eskuratu), honako hauek aurkeztu beharko dira: kontratatutako pertsonaren lan kontratua –enplegu bulegoan erregistratua–, NANaren kopia eta Gizarte Segurantzako altaren partearen kopia, eta, gutxienez, lehen hilabete osoaren nominaren kopia.

13.3. Kanpoko profesionalek emandako fakturen kasuan, erakunde onuradunak pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren konturako atxikipenen zenbatekoa ordaindu beharko du. Kasu horretan, justifikatu beharreko ordainketa egin beharra onartuko da eta Arabako Foru Aldundiaren ardura izango da ordainketa horiek egiaztatzea eta bidezko justifikazio txostena egitea. Baldin eta, dirulaguntza ordaindu eta gero, egiaztatzen bada ez direla sartu egin beharreko atxikipenak, dirulaguntza itzultzeko eta hari dagozkion interesak ordaintzeko eskatuko da.

13.4. Behin 13.2 artikuluan aipatutako dokumentazio guztia zuzen aurkeztuta, Arabako Foru Aldundiak dirulaguntza ordainduko du, justifikatu beharreko aurrerakin gisa, eta, beraz, erakunde onuradunak diruz lagundutako gastuen ordainketa justifikatu beharko du. Ez da ezarri emandako funtsen berme araubiderik.

13.5. Erakunde onuradunak 2027ko martxoaren 10a baino lehen aurkeztu beharko ditu diruz lagundutako gastuak justifikatzeko banku transferentziak edo merkataritzako trafiko juridikoan froga balio bera duten bestelako dokumentuak; haietan agertu beharko dira ordaintzailea, onuraduna, zenbatekoa, ordainketaren eguna eta kontzeptua.

13.5.a) Kontratazio gastuetarako dirulaguntza jasoz gero (sendotzeko laguntzen modalitatean baino ezin da eskuratu), agiri hauek aurkeztu beharko dira:

• Dagozkion nominak eta bankuko laburpenak edo transferentzia telematikoen aginduak, nominak ordaindu direla justifikatzen dutenak.

• Kotizazioen likidazioaren zerrenda (RLC) (lehen TC1), gizarte segurantzaren aplikazioaren bitartez sortua, eta ordainketaren banku laburpena.

• Langileen izenen zerrenda (RNT) (lehenago TC2), gizarte segurantzaren aplikazioaren bitartez sortua.

13.6. Dokumentuak telematikoki aurkezten badira, erantzukizunpeko adierazpena ere aurkeztu beharko da, Arabako Foru Aldundiaren webgunean, agertzen den ereduaren arabera, eta adierazi beharko da erantsitako fitxategiak jatorrizkoen benetako irudiak direla, jatorrizko dokumentuak eskaera egin duen erakundearen esku daudela eta Arabako Foru Aldundiaren esku jarriko direla, hark hala eskatuz gero.

13.7. Ordainketak arintzeko, unean unerako jarritako epe mugak baino lehenago aurkeztu ahal izango dira eskatutako agiriak.

13.8. Epe horiek igaro eta dirulaguntza ordaintzeko betebeharra onartzeko zein dirulaguntza ordaintzeko aurkeztu beharreko agiriak aurkeztu ez badira, edo agiriren bat falta bada, dirulaguntza zio horregatik murriztu edo baliogabe utziko da, dagokionaren arabera. Salbuespenez, ordaintzeko betebeharra onartzeko agiriak epez kanpo onartu ahal izango dira baldin mugae-gunetik aurrera hamar egun naturaleko epean aurkezten badira, eta azkenean justifikatutako zenbatekoaren ehuneko 20ko murrizketa ezarriko da dirulaguntzan.

13.9. Ordainagiriak onetsitako gastu osoaren zenbatekora iristen ez badira, dirulaguntzaren zenbatekoa proportzioan berregokituko da, eta dagokion kopurua baliogabe utziko da.

13.10. Ordaindu behar den dirulaguntzaren gutxieneko zenbatekoa, hura onestean bezala, 1.500,00 eurokoa da.

13.11. Dirulaguntza jaso duten jardueri eragiten dien gorabehera edo aldaketa oro jakinaraziko zaio Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zerbitzuari, eta behar diren erabakiak hartu eta erakunde onuradunari jakinaraziko dizkio berak. Halaber, Aldaketak onartu ahal izango dira, onartutako guztirako gastua muga delarik, hasiera batean diruz lagundutako jarduketetan eta horiei dagokien diru zenbatekoetan, haietakoren bat gauzatu ez izana gorabehera.

Aldaketa horiek Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zerbitzuaren oniritzia beharko dute. Aldaketak funtsezkoak badira, Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zuzendaritzak onetsi beharko ditu.

13.12. Aurreko paragrafoetan aipatutako dokumentazioa, dirulaguntza ordaintzeko betebeharra aitortzeko zein zenbatekoa kobratzeko, ahal dela baliabide elektronikoan bitartez aurkeztu beharko da Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa <https://e-s.araba.eus>.

Nola dirulaguntza ordaintzeko betebeharra onartzeko hala hura jasotzeko, eskaera Arabako Foru Aldundiaren erregistro orokorrean paperean aurkezten duen erakundeak justifikazio agiri horiek emprenderenalava@araba.eus posta elektronikora bidali beharko ditu gerora. Horako hori paperean (ofiziala) bidalitakoaren osagarri izango da; hau da, ez du aurkezpen egiaztagiribaliorik.

13.13. Erakunde onuradunek gastuen agiriak aurkeztu ondoren, Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zerbitzuak in situ egin ahalko ditu bisitak diruz lagundutako jarduerak egiaztatzeko.

14. artikulua. Dirulaguntzen bateragarritasuna

Oinarri arautzaileak onartzen dituen Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 10eko 54/2019 Foru Dekretuaren hamalauugarren oinarrian ezarritakoa aplikatzeaz gain, diruz lagundutako jarduketek jaso ditzaketen gainerako laguntzak, haien izaera eta ematen dituen organoa edo administrazioa edozein dela ere, bateragarriak izango dira deialdi honetatik eratorritakoekin, diruz lagundutako gastu osora iritsi arte; Arabako Foru Aldundiko beste administrazio-unitate batzuek emandakoak izan ezik, horiek bateraezinak izango baitira.

15. artikulua. Garapena

Ekonomia Garapenaren eta Jasangarritasunaren Saileko foru diputatuari eskumena ematen zaio deialdi hau garatzeko, aplikatzeko eta interpretatzeko beharrezko den xedapen oro emateko. Halaber, deialdi honen babesean emandako dirulaguntzak subrogatu ahalko ditu, erakunde onuradunek euren forma juridikoa aldatzen badute eta erakunde berriaren helburuak eskabidean aurkeztutakoan antzekoak badira. Era berean, ahalmena ematen zaio deialdian ezarritako baldintzak ez betetzeagatik bidezkoak diren itzulketak agintzeko.

16. artikulua. Deslokalizazioa eta ibilgetua besterentzea

16.1. Arabako Lurralde Historikoaren dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Araua-ren 43. artikuluan finkatutako egoerak ematen direnean joko da enpresa deslokalizazioa dagoela.

16.2. Halaber, diruz lagundutako ibilgetua ezingo da besterendu Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zuzendaritzaren alde aurreko berariazko baimenik gabe, dirulaguntza ordaintzen denetik bost urte pasa baino lehen; izan ere, baldintza hori bete ezean, jasotako diru laguntza itzuli beharko da.

17. artikulua. Publizitatea eta komunikazioa

Erakunde onuradunak diruz lagundutako jarduerak zabaltzeko jarduerarik egiten badu, Arabako Foru Aldundiak emandako laguntzaren berri aipatu beharko da hedapen horretarako sortzen diren material eta euskarrietan; horrela, bada, erakunde horiek irudi korporatiboa dela eta ezarritako oharretara egokituko dira.

18. artikulua. Eskaerak egokitzea

Deialdi honetan araututako dirulaguntzei heltzerik ez duten aurkeztutako eskabideak, kasuan kasu, Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zuzendaritzak kudeatutako beste laguntza lerro batzuetara eraman ahalko dira ofizioz.

19. artikulua. Araubide juridikoa

Deialdi honetan ezarritako prozedura Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 10eko 54/2019 Foru Dekretuaren bidez onetsitako oinarri arautzaileetan ezarritakoaren mendean dago, hauetan xedatutakoaren aurka ez badago: Arabako Lurralde Historikoaren Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Araua, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren erregelamendua onesten duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, nahiz dirulaguntzei buruzko ondorengo gainerako xedapenak.